

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Elikaleku proiektu berri bat denez ekoizle eta bezeroak erakartzeko modu batzuk erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, kartel batzuk egitea bururatu zaigu. Kartel honetan garbi utzi nahi dugu aplikazioak eskaintzen duena, eta horretarako informazio garrantzitsuena bilduko dugu ahal den modu laburrenean. Sare sozialen bidez zabalduko dugu kartela eta kaleetan ere itsatsiko ditugu. Honetaz gain, gure proiektuaren zatirik garrantzitsuena diren ekoizle eta bezeroak informatu eta erakartzeko hitzaldi batzuk eman ditzakegu. Karteletan hainbeste zehazten ez diren datuak azaldu eta jendearen galderei erantzunez. Horrela ekoizle berriak lortuz eta erabiltzaileak ugartuz.

Bestalde, ekoizleak mantentzeko ideia bat dugu. Ekoizleak gero eta denbora gehiago daramanean aplikazioa erabiltzen abantaila batzuk izango ditu. Hau da, bere bezeroengandik irabazten duen diruaz gain, hilabetero puntu batzuk pilatzen joango da, eta hainbat puntu lortzen dituenean deskontua egingo zaio aplikazioan produktu bat erosteko garaian bezero moduan.